

KORRONTZI

tradition 2.1

Korrontzi folk musika taldea Agus Barandiaranek 2004an sortu zuen Mungian (Bizkaia), eta handik gutxira, taldea ongi gorpuztuta, lehen txaloak etorri ziren. Korrontzi taldeak antzinako doinuetan babestutako Euskal Herriko folk musikari gaurkotasuna erantsi nahi zion, baina beti trikitixaren esparrua oinarri hartuta. Tradizioa gaurko teknikarekin lagunduta eta alboan dituen beste tresna guztien baturarekin. Korrontzi Euskal Herriko musikaren sustraia sortzen den taldea da.

Korrontzi taldearen laugarren diskoa "Tradition 2.1" da, grabaketak hamaika estudioetan egin dira, munduan zehar. Bilboko Transitory Resolution estudioan nahastu du Cesar Ibarretxe soinu ingeniariak 2012 eta 2013an zehar, "La Foule" eta "Flamendango" abestiak izan ezik, hauek Madrileko Casa Limon estudioetan nahastu ditu Salome Limonek 2013ko iraila eta urria. Post-produkzioa Javier Limonek egin du Madrileko Casa Limon estudioetan (2013ko iraila eta urria). Javier Limonek sari mordoa irabazitakoa da, horien artean hiru Grammy latindar. Agus Barandiaranek abesti guztien musika ekoizpena egin du, baita koordinazio tekniko ere, 2010eko abuztu-tik 2013ko urrira. Ander Hurtado de Saratxok eta César Ibarretxek lagundu dute musika ekoizpenean. Masterizazioa Juan Haldogok egin du Madrilgo Mastertips Mastering estudioetan. Klipak: "Sardos-k" 2013ko urriaren 4 eta 5ean grabatu da Huarteko (Nafarroa) Arte Ga-

raikideko Zentroan (Alex Piñeiro, Freshcupoftea Films). "Aupa Maurizia!" 2012ko abuztuaren 23an zuzenean grabatu zen Bilboko Aste Nagusiaren Abandoibarrako eszenatokian, dantzari laguntzaileak Igor Yebra eta Oksana Kucheruk dira. Guztira, 60 musikaritik gora izan dira euren artea erakutsi dutenak diskoan. 26 grabazio estudio erabili dira diskoaren grabaketak borobiltzeko.

Korrontzi taldearen "Tradition 2.1" diskoa kosmopolita da, Euskal Herriko musika tradizionala hamaika herrietako musikari eta euren musikarekin nahasketa. Trikitixa du muin, sustrai eta enbor nagusi, gero hosto koloretsuek adarretan indarra hartuko dute trikitixari musika ibilbidean lagundu, apaindu, babestu eta dotoretzeko. Emaizta liluragarria da. Hamasei abesti desberdin, baina alaitasunean antzeko adorea erekin. Flamenkoa nahastuta fandangoarekin, Portugalgo fadoa porrusaldaren zaratarekin, arin-arina eta Italia, biribilketa eta Galizia, Sizilia eta kalejira, Sardinia, Zimbabwe, Madagaskar, Eskozia, Asturias, Katalunia, Frantzia... Dena dator hainbat musika loturekin. Korrontzi taldeak tradizioari arropa distiratsua txertatu dizkio. Gaurkotasunez betetako tradizioan murgilduko du musika Korrontzi taldeak. Musika-errepide bidaiariak helaraziko dizkigu maisutasunez Agus Barandiaranek ikuspegi berritzailetik. Ibilbide ederra txinpartatsu izango den bidaiarako.

Michael McGoldrick: gaita irlandarra eta zeharkako flauta.

Luís Peixoto: mandolina, zarrabetea eta kemen oihua.

Fernando Barroso: bouzoukia.

Justin Vali: baliha eta ahotsa, hitzak

Diego Galaz: biolina.

Silethemba: Zinbabweko korua.

Mikel Markez: ahotsa eta koruak.

Ibon Koteron: alboka.

Tenores di Neoneli: sardiniar ahotsak.

Susana Seivane: galiziar gaita.

Naseem Alatrash: txeloak.

Eoghan Neff: biolina.

Mikel Urdangarin: ahotsa.

José Manuel Tejedor: Asturiasko gaita.

Xabier Berasaluze «Leturia»: panderoa.

Liron Man: handpans.

Phil Cunningham: akordeoia eta kemen oihua.

Fredi Peláez: pianoa.

Javier Limón: gitarra flamenkoa.

José Vargas: perkusioak.

Eliseo Parra: ahotsa.

Coetus perkusio taldea: perkusioak

Custódio Castelo: Portugaleko gitarra.

Riccardo Tesi: akordeoi diatonikoa.

Ali Amr: qanun.

Alex Sardui: ahotsa.

Mikel Urdangarin: ahotsa.

Garikoitz Mendizabal: txistua.

Naseem Alatrash: txeloak.

Antonio Carmona, Juan Camborio, Tareq Ratinsi, Juan Heredia & Abdul Sharif: perkusioak.

Mario Incudine: ahots nagusia, mandolontxelo, eta txitarra battentea.

Antonio Vasta: akordeoia eta zanpogna a paru.

Antonio Putzu: flauto barrocco, saxo sopranoa, musugitarra eta ciamarella.

Francesca Incudine: tammorra muta eta tamburello.

Roberta Gulisano, Lorenza Denaro, Marta Tudisco, Michela Gioveni & Serena Pitta: koruak.

Jimila: Zinbabweko korua.

Grabaketak: Rec-Astintze studios, Maruri (Bizkaia), Agus Barandiaran. Casa Limón studios, Madrid, Salomé Limón. Casa Limón (mobile unit), Zimbabwe, Javier & Salomé Limón. Boston (USA), Javier Limón. Ramala (Palestina), Javier Limón. Transitory Resolution studios, San Inazio-Bilbao (Bizkaia), César Ibarretxe. Warehouse studios, Manchester (UK), Rory McGoldrick. Groove Punch studios, Vigo (Galicia), Luís Peixoto. Pé-de-vento studios, Foros de Salvaterra (Portugal), Fernando Nunes. Kokko Records, Narbolia - Oristano (Cerdeña). La Rolanderia studios, Pistoia (Italia), Riccardo Tesi. Ronkio studios, Catral (Alicante), Josue "Ronkio" Rodríguez. Milos 44 studios, Valladolid, Goyo Yebes. DosTresCua studios, Atapuerca (Burgos), Diego Galaz. Castle Sound studios, Edinburgh (Scotland), Sturt Hamiltom. Music Lan studios, Avinyonet de Puigventós (Girona), Andreu Hernández, Jose Moleiro & Jordi Soler. AS Studio Project studios, Enna (Sicilia), Andrea Ensabella. Nómada 57 studios, Barcelona, Pere Aguilar. Enavies Producciones, Galicia, Iago Rodríguez. Zip Sound studios, Madrid, Luca Germini. KMT studios, Begoña-Bilbao (Bizkaia), Kike Mora. Pottoko studios, Beasain (Gipuzkoa), Fredi Peláez. Tik-Trak studios, Getxo (Bizkaia), Alberto Rodríguez.

Korrontzi:

Agus Barandiaran: trikitixak, txalaparta eta ahotsa.

Ander Hurtado de Saratxo: perkusioak, txalaparta eta bateria.

Kike Mora: kontrabaxua, baxu elektrikoa eta koruak.

Alberto Rodríguez: gitarra, mandolina, oktabatutako mandolina eta koruak.

Cesar Ibarretxe: soinu ingeniaria.

web: www.korrontzi.net

telf.: (+34) 618 072 076

email: korrontzi@gmail.com

facebook: www.facebook.com/korrontzi.folktaidea

twitter: twitter.com/Korrontzi

elkarrizketak: 690 704 255

ritxi aizpuru (2013ko azaroaren 7a)